

**Iñaki Múgica Flores Lasarte-Oriako Udaleko Alkatetzaren kabineteburuak egindako txostena.**

<b>GAIA:</b>	Asteroko merkatuko eta kaleko salmentan gaineko udal ordenantza lantzeko kontsulta-prozesuari buruzko txostena
<b>TXOSTENAREN DATA:</b>	2022ko maiatzaren 2a
<b>TXOSTEN zk.:</b>	02/2022

Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Komunaren 39/2015 Legeak herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzeari buruzko 133 artikuluan ezartzen duenez, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua egin baino lehen kontsulta publiko bat egin beharko da.

Lasarte-Oriako Udalaren Zerbitzu Publikoen departamentuak eskatuta, eta asteroko merkatuko eta kaleko salmentan gaineko udal ordenantzaren onespina abian jartzeko beharra ikusita, aldez aurreko kontsulten prozesu bat ireki du. Horretarako, udalaren webgunean parte hartzeko prozesu bat ireki zen, apirilaren 29ra arteko epea emanez herritarrek beren proposamenak udalari helarazteko, honela egin zezaketelarik:

- Idatziz, Udaleko Erregistroan idatzi bat aurkeztuz.
- Bide telematikoz, Herritarren Parte-hartzearen atalaren bitartez.
- E-maila bidaliz helbide elektroniko honetara: [partehartzea@lasarte-oria.eus](mailto:partehartzea@lasarte-oria.eus).

Irekitze hori prentsari komunikatu zitzaion, apirilaren 6an bidalitako ohar baten bidez, Lasarte-Oriako herritar guztiengana hobeto zabaltzeko xedez.

Proposamenak aurkezteko epea amaituta egiaztatu ahal izan dugunez, **bi ekarpen jaso dira** horretarako e-maila bidaliz helbide elektroniko honetara: [partehartzea@lasarte-oria.eus](mailto:partehartzea@lasarte-oria.eus), eta hori Zerbitzu Publikoen departamentuari jakinarazten zaio, ordenantza lantzeko eta onesteko prozesua jarrai dezan.

Iñaki Múgica Flores  
Alkatetzako kabinetea